# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia | Iruña, 2009ko otsailaren 9a | 7. ZK.

## A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, Santa María de Garoñako zentral nuklearra ixteari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (4. or.).

—Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak nola bermatuko dien nafarrei alokairuko etxebizitza bat eskuratu ahal izanen dutela, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (5. or.).

—Galdera, alokairuko etxebizitza arloko politikari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (6. or.).

—Galdera, jakiteko ea zer neurri hartu dituen Euskarabideak langile publikoen euskarazko prestakuntza behar bezala bermatzeko buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (6. or.).

—Galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak ez duen parte hartzen Sareko Ikerketa Biomedikoari Babesa Emateko Partzuergoan, María Chivite Navascués andreak egina (7. or.).

—Galdera, jakiteko ea zer jarrera duen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak etxebizitzak sustatzeari dagokionez Vinsak dituen eginkizunak kentzeko proposamena dela eta, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (7. or.).

—Galdera, Euskarari buruzko Legeko 27. artikuluak xedatutakoa betetzeari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (8. or.).

—Galdera, Zortziko izeneko biribilgunearen azterlanari, proiektuari eta aurreikuspenari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (9. or.).

—Galdera, telefonia mugikorreko antenei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (9. or.).

—Galdera, gizarte bazterkeriaren gaineko neurriei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (10. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Irabazi asmorik gabeko erakunde eta enpresentzako laguntzak, aukera berdintasuna sustatze aldera" izeneko kontusaileko onuradunei eta jasotako zenbatekoei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (11. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Istripuak Kontrolatzeko Batzordeko kide diren erakundeentzako konpentsazioa" izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (12. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Lan Autonomoaren Nafar Kontseiluan parte hartzen duten erakundeentzako konpentsazioa" izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (13. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, kontratazio egonkorra sustatzeko” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (14. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneko arriskuei aurrea hartzeko Foru Komunitatearen ordezkariak direla eta” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (15. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneko arriskuei aurrea hartzeko programak direla eta” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (16. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Sindikatuen hauteskunde prozesua jarraitzeko batzordea osatzen duten sindikatuei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren kargura sindikatu bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (17. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Sindikatuentzako transferentziak, duten ordezkaritzaren araberakoak” izeneko kontusailaren kargura sindikatu bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (18. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Emakumearen Kontseiluko kide diren sindikatuen arteko hitzarmena” izeneko kontusailaren kargura sindikatu horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (19. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (20. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintza kofinantzatu gabeetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (21. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, nekazaritzako enplegu programetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (22. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, enpleguko egonkortasun programak, aitortu gabeko enpleguaren erregularizazioa, autonomoak eta ekintzaileak direla eta” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (23. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Enplegu planak prestatzeko eta horien jarraipena egiteko batzordea osatzen dutenei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren onuradunei eta jasotako zenbatekoei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (24. or.).

—Galdera, jakiteko zer entitatek izenpetu dituzten hitzarmenak, zeinetarik Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Entitateekiko hitzarmenak, informazioaren gizartea sustatazeko” izeneko kontusaileko gastua heldu baita, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (25. or.).

—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneratzeko orientabideko ekintzetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (26. or.).

—Galdera, Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinak laneratu eta gizarteratzeko” izeneko kontusailaren kargura UGT eta CC.OO sindikatuei 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (27. or.).

—Galdera, babes ofizialeko etxebizitzak erostea finantzatze aldera Nafarroako Gobernuarekin hitzarmenen bat duten edo halakoren bati atxiki zaizkion finantza-entitateei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (28. or.).
—Galdera, Sarrigurengo 273 etxebizitzen obraren proiektua eta zuzendaritza esleitzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (28. or.).
—Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren menpe herritarrei emandako zerbitzuen egiturari eta antolamenduari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (29. or.).
—Galdera, Irurita-Elizondo saihesbideari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (30. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuaren nahiz Nasuinsaren parte-hartzearekin garatutako industrialdeei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (31. or.).
—Galdera, ingeleseko irakasleak birziklatze aldera Kanadan 2008an egindako ikastaroari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (31. or.).
—Galdera, toki entitateei kirol instalazioetarako emandako laguntzei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (32. or.).
—Galdera, Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (33. or.).
—Galdera, hauteskunde sindikalen prozesuak informatizatzeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (34. or.).
—Galdera, ingurumen zuzendari nagusiaren 617/2008 Ebazpenari buruzkoa –horren bidez, jendaurrean jartzen dira genetikoki eraldatutako organismoekin eginen diren jardueretarako eskaerak–, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (34. or.).
—Galdera, Valtierra eta Arguedasko saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (35. or.).
—Galdera, Milagroko saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (36. or.).
—Galdera, Mendabiako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (36. or.).
—Galdera, Lodosako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (37. or.).
—Galdera, Azagrako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (38. or.).
—Galdera, NA-7008 errepidea Gorozin eta Zurukuain bitartean zabaltzeko eta hobetzeko proiektuari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (38. or.).
—Galdera, Nafarroan 2000 eta 2008 bitarte garatutako udal industrialdeei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (39. or.).
—Galdera, Defentsa Ministerioak Ezkabako Gotorlekua laga dezan egin diren zuzemenei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (40. or.).
—Galdera, jakiteko nola arindu nahi duen Nafarroako Gobernuak enpleguko zentro berezien laneko egoera buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (40. or.).
—Galdera, urtarrilaren 22ko elurteak Loitiko mendatean eragindako trafiko-arazoak direla-eta Nafarroako Larrialdietako Agentziak jasotako telefono deiei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (41. or.).
—Galdera, urtarrilaren 22an Loitiko mendatean izandako trafiko-kolapsoari buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (42. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, Santa María de Garoñako zentral nuklearra ixteari buruzkoa.

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Santa María de Garoñako zentral nuklearra ixteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, dagokion batzordean ahoz erantzun diezaion:

Zioen azalpena

2008ko ekainaren12an, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bikurak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak energia nuklearraren eredua amaiaraztearen aldeko apustu egiten duen, gutxiago kutsatzen duten energien alde eta energia aurrezteko planak taxutu eta ezartzearen alde eginez eredu horren ordez. Halaber, mozio horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen zen lehenbailehen itxi zezan Santa María de Garoñako zentral nuklearra, jada bete baitu bere bizitza erabilgarriko denbora.

Gobernuko lehendakari José Luis Rodríguez Zapaterok gutun bat igorri dio IUko Gaspar Llamazares diputatuari, eta bertan dio Espainiako Gobernuak sei hilabete iragan baino lehenago erabaki lezakeela “balizko luzapena” ematea Santa María de Garoñako (Burgos) zentral nuklearrari, hura ustiatzeko baimena heldu den uztailean iraungitzen baita.

Hala, hauteskundeetan agindutako gauzetako bat ez du beteko; izan ere, gizarteari adierazi zion “zentral nuklear zaharkituak eta segurtasun akatsak dituztenak pixkanaka ixtea sustatzeko konpromiso sendoa”.

1971ko udazkeneko egun batean Garoña inauguratu zenetik, bertan erabiltzen den General Electric-en teknologia zaharkituta dago jada. Gorabeherak eta geldialdiak erraztasun kezkagarriarekin gertatzen dira; horietako hiru iragan uztailean eta abuztuan izan ziren.

Ez da oso ondo ulertzen zeintzuk diren baldintzak, konpainia elektriko handiei ohore egiteari uzteaz gain, Espainiako herritarrak arriskuan jartzeari uzteko.

Galdera honi erantzutea nahi dut:

Zer ekimen jarriko ditu abian Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuaren erabakia bete dadin eta Santa María de Garoñako zentral nuklearra betiko itxi dezaten?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

# Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak nola bermatuko dien nafarrei alokairuko etxebizitza bat eskuratu ahal izanen dutela.

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak nola bermatuko dien nafarrei alokairuko etxebizitza bat eskuratu ahal izanen dutela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, dagokion batzordean ahoz erantzun diezaion:

Zioen azalpena

Nafar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea; hala dago jasota Konstituzioan. Hala ere, gizarte-edukia duten Konstituzioko hainbat manurekin gertatzen den bezala, gizarte-sektore zabalek zailtasun handiak dituzte etxebizitza lortzeko, ordaintzeko moduko prezioa duen etxebizitza gutxi baitago.

Horri gehitzen zaizkio egoera zailagoak, eskatzaileei –gazteak, urtean gehienez 13.000 euroko dirusarrerak dituztenak, horien artean etorkinak, banandutako pertsonak eta genero indarkeriaren biktimak–, babes ofizialeko etxebizitza bat alokatu ahal izateko eskatzen zaienean 5.000 eta 6.000 euro arteko abala; izan ere, gaur egungo lan egoera eta egoera ekonomikoa ikusirik, zaila da abal hori lortu ahal izatea.

Nafarroako indarrean dagoen etxebizitza babestuari buruzko araudiak ez du ezartzen etxebizitza-sustatzaileek banku-abal bat eskatu behar dutenik. Baina errealitatea da sustatzaileek eskatu egiten dutela, baita Vinsa enpresa publikoa ere. Foru araudi horrek ezartzen duenez, bermearen zenbatekoa ez da izanen urtebeteko errenta baino handiagoa. Gainera, sustatzaileek, hilabete bateko fidantzaz gain, Nafarroako araudiak baimentzen duen gehieneko abala eskatzen dute.

Egoera ikusirik, galdera honi erantzutea nahi dut:

Nola ziurtatuko du Nafarroako Gobernuak nafarrek izatea etxebizitza bat alokairuan eskuratzeko aukera, soldata bat izanda ere, bankuen sistemak ez badie ematen babes ofizialeko etxebizitza baten urtebeteko alokairuaren balioari dagokion abala?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## Galdera, alokairuko etxebizitza arloko politikari buruzkoa.

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, alokairuko etxebizitza arloko politikari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Alokairuko etxebizitza arloko politikari buruzko galdera

• Zer politika egin behar du zure departamentuak erantzuteko babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko adina dirusarrera ez duten pertsonen etxebizitza eskaerari?

• Alokairurako zenbat etxebizitza publiko egin behar ditu Vinsak 2009/2010 urteetan?

• Horietatik zenbatek izanen dute alokatzen dituztenen soldatekiko proportzionala izanen den errenta?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

---

## Galdera, jakiteko ea zer neurri hartu dituen Euskarabideak langile publikoen euskarazko prestakuntza behar bezala bermatzeko buruzkoa.

*PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zer neurri hartu dituen Euskarabideak langile publikoen euskarazko prestakuntza behar bezala bermatzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Paula Kasares Corrales Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera hauek egin nahi ditu Hezkuntza Departamentuko Kontseilariak izen bereko batzordean ahoz erantzun diezaien.

Nafarroako Administrazio Publikoetako langileendako euskara ikastaroen funtzionamenduaren inguruan izan diren kexuak direla eta, zer neurri hartu du Euskarabideak langile publikoen euskarazko prestakuntza behar bezala bermatu, NAPIrekin koordinazio pedagogikoa hobetu, irakasleen baja aldiak ordezkatu eta eskoletarako leku fisiko egokia ziurtatze aldera?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

---

## Galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak ez duen parte hartzen Sareko Ikerketa Biomedikoari Babesa Emateko Partzuergoan.

*MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak ez duen parte hartzen Sareko Ikerketa Biomedikoari Babesa Emateko Partzuergoan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 25ean osatu zen Sareko Ikerketa Biomedikoari Babesa Emateko Partzuergoa. Bertan Espainia osoko zenbait erakunde publiko eta pribatuk parte hartzen dute, eta Nafarroa eta beste autonomia erkidego bat dira erakunde publikoen ordezkaritzarik ez duten bakarrak.

Hori dela eta, honako galdera egin nahi dut:

Sareko Ikerketa Biomedikoari Babesa Emateko Partzuergoaren funtsezko helburua da ikerketa klinikoaren oinarrizko egitura ezartzea, herritarren osasuna eta ongizatea sustatze aldera. Zergatik Osasun Departamentuak, bere izenean edo bere erakunde publikoen bidez, ez du parte hartzen partzuergo horretan?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

---

## Galdera, jakiteko ea zer jarrera duen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak etxebizitzak sustatzeari dagokionez Vinsak dituen eginkizunak kentzeko proposamena dela eta.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zer jarrera duen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak etxebizitzak sustatzeari dagokionez Vinsak dituen eginkizunak kentzeko proposamena dela eta.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zioen azalpena

Duela gutxi, Nafarroako Gobernuko lehendakariak adierazpen batzuk egin zituen. Horien arabera, Vinsa sozietate publikoaren jarduera birdoitu eta etxebizitzak sustatzeko eginkizuna kentzearen aldekoa da.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer jarrera du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilari Esparza Sáez jaunak etxebizitzak sustatzeari dagokionez VINSAk dituen eginkizunak kentzeko proposamena dela eta?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## Galdera, Euskarari buruzko Legeko 27. artikuluak xedatutakoa betetzeari buruzkoa.

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Euskarari buruzko Legeko 27. artikuluak xedatutakoa betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Mª Luisa Mangado Cortés andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilari Carlos Pérez Nievas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bete behar al duzu Euskararen Legearen 27. artikuluan ezartzen dena? Hau da, emanen al diezu euskarazko komunikabideei aurrekontu nahikoa, ziurtatzeko, horien bidez, gure hizkuntzak izanen duela pixkanakako bultzada?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 22an.

Foru parlamentaria: Luisa Mangado Cortés

---

## Galdera, Zortziko izeneko biribilgunearen azterlanari, proiektuari eta aurreikuspenari buruzkoa.

*TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Zortziko izeneko biribilgunearen azterlanari, proiektuari eta aurreikuspenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Iruñaren eta Berriozarren arteko mugan dagoen Zortziko deituriko biribilguneari buruzko azterlana, proiektua eta jarduera-aurreikuspena? Eta zerbait egiteko aurreikuspena balego, zein epetan eginen da?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

---

## Galdera, telefonia mugikorreko antenei buruzkoa.

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, telefonia mugikorreko antenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko departamentu eskuduneko kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Telefonia mugikorreko antenei buruzko galdera.

1. Telefonia mugikorreko zenbat antena daude Nafarroan eta non daude kokatuta?

2. Zenbat azterketa egin dira telefonia mugikorreko antenak arretazko erabilerako lekuetan jartzeko, Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarrizko estazioak antolatzeko maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz? Zeintzuk dira antenak dituzten arretazko erabilerako lekuak? Departamentuak ba al daki antenaren bat jarri ote den arretazko erabilerako lekuetan berariazko azterketarik egin gabe?

3. Departamentuak ba al daki antenaren bat jarri ote den aipatu legeak debekaturiko lekuren batean? Non?

4. Aipatu legearen 3. artikuluak aurreikusten du ikerketa epidemiologikoa eginen dela Nafarroako Foru Komunitatean. Egin al da ikerketa hori?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

# Galdera, gizarte bazterkeriaren gaineko neurriei buruzkoa.

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, gizarte bazterkeriaren gaineko neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Bazterketa sozialaren aurkako neurriei buruzko galdera.

1. Zenbat aurreikusten da handituko dela aurten bazterketa sozialaren aurkako programetako laguntzak jasotzeko eskaera kopurua?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Irabazi asmorik gabeko erakunde eta enpresentzako laguntzak, aukera berdintasuna sustatze aldera" izeneko kontusaileko onuradunei eta jasotako zenbatekoei buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Irabazi asmorik gabeko erakunde eta enpresentzako laguntzak, aukera berdintasuna sustatze aldera" izeneko kontusaileko onuradunei eta jasotako zenbatekoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko "Lan harremanak eta arriskuei aurrea hartzea" izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat "Irabazi asmorik gabeko erakunde eta enpresentzako laguntzak, aukera berdintasuna sustatze aldera" izenekoa, 190.000 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Nortzuk jaso dituzte laguntza horiek eta zenbat diru eman zaio jasotzaile bakoitzari?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Istripuak Kontrolatzeko Batzordeko kide diren erakundeentzako konpentsazioa” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Istripuak Kontrolatzeko Batzordeko kide diren erakundeentzako konpentsazioa” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Lan harremanak eta arriskuei aurrea hartzea” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “Istripuak Kontrolatzeko Batzordeko kide diren erakundeentzako konpentsazioa” izenekoa, 173.885 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaio batzorde horretako kide bakoitzari 2008an kontusail horren kargura?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Lan Autonomoaren Nafar Kontseiluan parte hartzen duten erakundeentzako konpentsazioa" izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Lan Autonomoaren Nafar Kontseiluan parte hartzen duten erakundeentzako konpentsazioa" izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko "Lan harremanak eta arriskuei aurrea hartzea" izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat "Lan Autonomoaren Nafar Kontseiluan parte hartzen duten erakundeentzako konpentsazioa" izenekoa, 60.000 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaio batzorde horretako kide bakoitzari 2008an kontusail horren kargura?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, kontratazio egonkorra sustatzeko” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, kontratazio egonkorra sustatzeko” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Lan harremanak eta arriskuei aurrea hartzea” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, kontratazio egonkorra sustatzeko” izenekoa, 72.100 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaie CEN, UGT eta CCOO erakundeei 2008an kontusail horren kargura?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneko arriskuei aurrea hartzeko Foru Komunitatearen ordezkariak direla eta” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneko arriskuei aurrea hartzeko Foru Komunitatearen ordezkariak direla eta” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Lan harremanak eta arriskuei aurrea hartzea” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, kontratazio egonkorra sustatzeko” izenekoa, 793.677 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaie CEN, UGT eta CCOO erakundeei 2008an kontusail horren kargura?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneko arriskuei aurrea hartzeko programak direla eta” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneko arriskuei aurrea hartzeko programak direla eta” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Lan harremanak eta arriskuei aurrea hartzea” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneko arriskuei aurrea hartzeko programak direla eta” izenekoa, 838.796 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaie CEN, UGT eta CCOO erakundeei 2008an kontusail horren kargura?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Sindikatuen hauteskunde prozesua jarraitzeko batzordea osatzen duten sindikatuei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren kargura sindikatu bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Sindikatuen hauteskunde prozesua jarraitzeko batzordea osatzen duten sindikatuei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren kargura sindikatu bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Lan harremanak eta arriskuei aurrea hartzea” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “Sindikatuen hauteskunde prozesua jarraitzeko batzordea osatzen duten sindikatuei egin beharreko ordainketa” izenekoa, 105.305 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaio sindikatu bakoitzari 2008an kontusail horren kargura?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Sindikatuentzako transferentziak, duten ordezkaritzaren araberakoak" izeneko kontusailaren kargura sindikatu bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Sindikatuentzako transferentziak, duten ordezkaritzaren araberakoak" izeneko kontusailaren kargura sindikatu bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko "Lan harremanak eta arriskuei aurrea hartzea" izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat "Sindikatuentzako transferentziak, duten ordezkaritzaren araberakoak" izenekoa, 374.223 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaio sindikatu bakoitzari 2008an kontusail horren kargura?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

## Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Emakumearen Kontseiluko kide diren sindikatuen arteko hitzarmena" izeneko kontusailaren kargura sindikatu horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Emakumearen Kontseiluko kide diren sindikatuen arteko hitzarmena" izeneko kontusailaren kargura sindikatu horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko "Enplegu sustapena" izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat "Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Emakumearen Kontseiluko kide diren sindikatuen arteko hitzarmena" izenekoa, 353.181 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaio Emakumearen Kontseiluko kide den sindikatu bakoitzari 2008an kontusail horren kargura?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Enplegu sustapena” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako” izenekoa, 180.250 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaio sindikatu bakoitzari –UGT eta CCOO– 2008an kontusail horren kargura?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintza kofinantzatu gabeetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintza kofinantzatu gabeetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Enplegu sustapena” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintza kofinantzatu gabeetarako” izenekoa, 746.750 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaio sindikatu bakoitzari –UGT eta CCOO– 2008an kontusail horren kargura?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, nekazaritzako enplegu programetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, nekazaritzako enplegu programetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Enplegu sustapena” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, nekazaritzako enplegu programetarako” izenekoa, 401.031 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaio sindikatu bakoitzari –UAGN, UGT eta CCOO– 2008an kontusail horren kargura?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, enpleguko egonkortasun programak, aitortu gabeko enpleguaren erregularizazioa, autonomoak eta ekintzaileak direla eta" izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren "UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, enpleguko egonkortasun programak, aitortu gabeko enpleguaren erregularizazioa, autonomoak eta ekintzaileak direla eta" izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko "Enplegu sustapena" izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat "CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, enpleguko egonkortasun programak, aitortu gabeko enpleguaren erregularizazioa, autonomoak eta ekintzaileak direla eta" izenekoa, 816.490 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaie CEN, UGT eta CCOO erakundeei 2008an kontusail horren kargura?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Enplegu planak prestatzeko eta horien jarraipena egiteko batzordea osatzen dutenei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren onuradunei eta jasotako zenbatekoei buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Enplegu planak prestatzeko eta horien jarraipena egiteko batzordea osatzen dutenei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren onuradunei eta jasotako zenbatekoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “Enplegu planak prestatzeko eta horien jarraipena egiteko batzordea osatzen dutenei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” izenekoa, 158.345 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Nortzuk jaso dituzte laguntza horiek eta zenbat diru eman zaio jasotzaile bakoitzari?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, jakiteko zer entitatek izenpetu dituzten hitzarmenak, zeinetarik Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Entitateekiko hitzarmenak, informazioaren gizartea sustatazeko” izeneko kontusaileko gastua heldu baita.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer entitatek izenpetu dituzten hitzarmenak, zeinetarik Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Entitateekiko hitzarmenak, informazioaren gizartea sustatazeko” izeneko kontusaileko gastua heldu baita.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Informazioaren gizartea sustatzea” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “Entitateekiko hitzarmenak, informazioaren gizartea sustatzeko” izenekoa, 300.000 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer entitatek izenpetu dituzte hitzarmenak, zeinetatik kontusaileko gastua heldu baita? Zer kopuru eskuratu du entitate bakoitzak 2008an?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneratzeko orientabideko ekintzetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneratzeko orientabideko ekintzetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Prestakuntza eta bitartekaritza” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneratzeko orientabideko ekintzetarako” izenekoa, 1.742.037 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaio sindikatu bakoitzari –UGT eta CCOO– 2008an kontusail horren kargura?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinak laneratu eta gizarteratzeko” izeneko kontusailaren kargura UGT eta CC.OO sindikatuei 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinak laneratu eta gizarteratzeko” izeneko kontusailaren kargura UGT eta CC.OO sindikatuei 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Immigraziorako Bulegoa” izeneko proiektuaren barruan bada kontusail bat “UGT eta CCOO sindikatuekiko hitzarmenak, etorkinak laneratu eta gizarteratzeko” izenekoa, 300.000 euro dituena. Kontusail hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer kopuru transferitu zaio sindikatu bakoitzari –UGT eta CCOO– 2008an kontusail horren kargura?

b) Erakunde horiekin sinatutako hitzarmenen kopia nahi dut.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

# Galdera, babes ofizialeko etxebizitzak erostea finantzatze aldera Nafarroako Gobernuarekin hitzarmenen bat duten edo halakoren bati atxiki zaizkion finantza-entitateei buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, babes ofizialeko etxebizitzak erostea finantzatze aldera Nafarroako Gobernuarekin hitzarmenen bat duten edo halakoren bati atxiki zaizkion finantza-entitateei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zein banku-entitaterekin dauka hitzarmena Nafarroako Gobernuak herritarrei finantzaketa emateko, babes ofizialeko etxebizitza eros dezaten?

2. Zeintzuk dira hitzarmen horrek klausulak?

3. Zer konpromiso hartu dituzte aldeek?

4. Hitzarmenaren kopia bat igortzea nahi nuke.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Sarrigurengo 273 etxebizitzen obraren proiektua eta zuzendaritza esleitzeari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Sarrigurengo 273 etxebizitzen obraren proiektua eta zuzendaritza esleitzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nork esleitu zuen Sarrigurengo 273 etxebizitzen proiektua eta obra-zuzendaritza?

2. Vinsa izan bazen, nork hartu zuen parte?

3. Zer prozeduraren bidez esleitu zen proiektua eta obra-zuzendaritza?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren menpe herritarrei emandako zerbitzuen egiturari eta antolamenduari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren menpe herritarrei emandako zerbitzuen egiturari eta antolamenduari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Lehena.- Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren menpe herritarrei emandako zerbitzuen egituraren eta antolamenduaren deskribapen xehakatua.

Bigarrena.- Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ematen dituen zerbitzuetatik, zehaztu zeintzuk ematen diren zuzenean, administrazioaren mendeko langile funtzionarioen edo kontratudunen bidez, eta zeintzuk ematen diren kanpoko enpresetako langileen bidez.

Hirugarrena.- Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren menpe zerbitzuak ematen dituzten enpresen izenak ematea, zehaztuta enpresa bakoitzak ematen duen zerbitzua, zenbat langile dituen, bai eta administrazio kontseiluko kideen zerrenda ere.

Laugarrena.- Enpresa horiekin sinatutako esleipen-kontratuak igortzea, zehaztuta zein den erabilitako esleipen-prozedura.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Irurita-Elizondo saihesbideari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Irurita-Elizondo saihesbideari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Irurita, Elizondo eta Elbeteko erdiguneetatik igaro beharrik ez izateko N-121-B errepidean kanpoko saihesbide bat egiteko proiektua dezente atzeratu da, kontuan hartzen baditugu aurreikusitako epeak, bai bere garaian Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria zenak iragarritakoak, bai gaur egungo kontseilariak iragarritakoak.

Lan hori sartuta zegoen 2002-2009 urteetarako Nafarroako Errepideen II. Plan Zuzendarian. Aurreikuspenen arabera, 2004an hasi eta 2006rako bukatuta egon behar zuen. 2006ko azaroan, aurreko Herri Lan kontseilariak aurkeztu zuen saihesbide horri buruzko azterlan informatiboa eta iragarri zuen lanak 2007ko azken hiruhilekoan esleituko zirela eta 2009ko uda baino lehen amaituta egonen zirela.

Lan horiek sartu ziren 2007ko urtarrilean aurkeztutako Nafarroako Errepideen Sareko Inbertsioak Azkartzeko Planean, 9,4 milioi euroko aurrekontuarekin, eta obrak bukatzeko aurreikuspena 2009ko lehen hiruhilekora aurreratu zen.

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko oroitidazkian, Irurita-Elizondo saihesbidea agertzen da, 2008an amaitu behar ziren Inbertsioak Azkartzeko Planeko obretako bat bezala. Parlamentari honek eskatuta Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak iragan 2008ko maiatzaren 29an Nafarroako Parlamentuan eginiko agerraldian, adierazi zuen proiektua idatzita zegoela, onespen teknikoa eman zitzaiola eta jendaurrean ipini zela, apirilaren 15eko 33/2008 Foru Aginduaren bidez. Aurreikuspenen arabera, proiektua jendaurrean egonen zen 2008ko ekainaren 2ra arte, eta ondoren behin betiko onespena emanen zitzaion.

Azkenik, 2009rako onetsitako Nafarroako aurrekontu orokorretan ez da agertzen inolako zenbatekorik obra horietarako; are gutxiago, lanak ez dira aipatu ere egiten, eta, horretaz gain, Parlamentuan atzera bota zen lan horiek has daitezen aurkeztutako milioi bat euroko zuzenketa bat.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Ba al dago dirurik 2009ko aurrekontuan Irurita-Elizondo saihesbideko lanak egiteko?

b) Zein fasetan dago proiektu hori eta zer zuzemen falta dira lanak esleitzeko lehiaketa deitu ahal izateko?

c) Zer asmo dago proiektu hau izapidetzeari eta betetzeari buruz?

d) Zergatik ari da obra hau etengabe atzeratzen eta, zehazki, zergatik, antza denez, ez da esleituko 2009an?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

## Galdera, Nafarroako Gobernuaren nahiz Nasuinsaren parte-hartzearekin garatutako industrialdeei buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren nahiz Nasuinsaren parte-hartzearekin garatutako industrialdeei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

a) Zer industrialde garatu dira Nafarroan 2000tik 2008ra arte, bi urte horiek barne, Nafarroako Gobernuaren edota Nasuinsaren partaidetza oso nahiz partzialarekin?

Datuak herrien arabera xehakatuta nahi nituzke, zehaztuta industrialde bakoitzaren zabalera, lurzatien azalera osoa, ezaugarri bereziak, halakorik balego, eta industrialde bakoitzean onartzen diren erabilerak.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

---

## Galdera, ingeleseko irakasleak birziklatze aldera Kanadan 2008an egindako ikastaroari buruzkoa.

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, ingeleseko irakasleak birziklatze aldera Kanadan 2008an egindako ikastaroari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzuteko:

Ingeleseko irakasleek 2008an Kanadan eginiko birziklatze-ikastaroaren lehen esperientzia eta gero, uste dut Hezkuntza Departamentua informazioa emateko moduan egonen dela. Hauxe jakin nahi dut:

Zenbat diru gastatu du departamentuak irakasleak prestatzeko ikastaro horietan?

Zein da 2009rako gastu-aurreikuspena?

Ikastaro mota horrek irakasleen lanbidean sartu berri diren irakasleentzat izan behar al du?

Arlo desberdinetako espezialista diren zenbat irakasle izanen ditu departamentuak lehen hezkuntzako ikasleak bigarren hezkuntzara igaro eta proiektu elebidunarekin jarraitzen dutenean?

Departamentuak ba al du epe ertaineko egitasmorik proiektu elebidun hori ikastetxeetan ezartzeko?

Halakorik badu, eskuratu nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

## Galdera, toki entitateei kirol instalazioetarako emandako laguntzei buruzkoa.

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, toki entitateei kirol instalazioetarako emandako laguntzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Toki entitateei kirol instalazioetarako ematen zaizkien laguntzei buruzko galdera

• Zenbat toki entitatek eskatu zuten kirol instalazioetarako laguntza? Zeintzuk?

• Zenbat udali eman zitzaien lagutza hori? Zeintzuk dira udal horiek?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

---

# Galdera, Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruzkoa.

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek Sodenaren eta Acciona, S.A.-ren arteko akzioen erosketari buruzko zenbait dokumentu eskatu zuen.

Dokumentazio hori azterturik, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zein dira arrazoiak 2004ko urriaren 29ko datarekin bi kontratu pribatu sinatzeko, bakarra sinatu ordez? Bi kontratu egin ziren notarioari ezkutatzeko akzioen salerosketaren eskritura sinatzerakoan bazegoela hitzarmen osagarria, eta, hala, saihesteko hitzarmen hori erregistro publikoetan, hala nola Merkataritza Erregistroan, inskribatzea edota Balore Merkatuko Batzorde Nazionalari jakinaraztea?

2.- Nola bermatu du Nafarroako Gobernuak hitzarmen osagarriaren 10. klausula, konfidentzialtasun klausula ezartzen duena, EHNren salerosketa 34 entitaterekin negoziatu bazen, isilpean eta Nafarroako Parlamentuaren ezagutzarik gabe?

3.- Nola bermatu du Nafarroako Gobernuak akzioen salerosketaren kontratuko 6. klausula, azkenekoz arbuiatutako hautagaiari, hau da, azkenean bigarren geratu zenari, dagokionez?

4.- Sodenak Iberdrolaren akzioak erosi izanari buruzko auditoria egite aldera, bidali al da Nafarroako Comptos Ganberara Sodenaren partaidetza zuen Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarra, S.A.-ren akzioen salmentari buruzko espedienteko dokumentazio guztia, eta zehazki, gonbidaturiko 34 entitateei buruzkoa?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

# Galdera, hauteskunde sindikalen prozesuak informatizatzeari buruzkoa.

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, hauteskunde sindikalen prozesuak informatizatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Hauteskunde sindikalen prozesuak informatizatzeari buruzko galdera.

• Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak ba al du asmorik Nafarroako hauteskunde sindikalen prozesuen kudeaketa eta prozesu burokratikoa informatizatzeko?

• Asmorik ez badu, zergatik ez?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

# Galdera, ingurumen zuzendari nagusiaren 617/2008 Ebazpenari buruzkoa –horren bidez, jendaurrean jartzen dira genetikoki eraldatutako organismoekin eginen diren jardueretarako eskaerak–.

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, ingurumen zuzendari nagusiaren 617/2008 Ebazpenari buruzkoa –horren bidez, jendaurrean jartzen dira genetikoki eraldatutako organismoekin eginen diren jardueretarako eskaerak–.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

617/2008 Ebazpena, martxoaren 26koa, Ingurumen zuzendari nagusiak emana, genetikoki eraldatutako organismoekin eginen diren jardueretarako eskaerak jendaurrean jartzen dituena. Hauek dira genetikoki eraldatutako artoarentzako eskaeren identifikazioak: B/ES/08/09, B/ES/08/10 eta B/ES/08/11.

Genetikoki eraldatutako artoaren borondatezko liberazioetarako jakinarazpenak jaso dira Ingurumen Zuzendaritza Nagusian, merkaturatzea ez den beste helburu batzuetarako, eremu saiakuntzak egiteko. Liberazioak Monsanto Agricultura

España, S.L. enpresak sustatu ditu, eta honako jakinarazpen erreferentziak dituzte: B/ES/08/09, B/ES/08/10 eta B/ES/08/11.

Urtarrilaren 30eko 178/2004 Errege Dekretuaren 25. artikuluko 4. idatz-zatiari (merkaturatzea ez beste helburu batekin GAOak borondatez liberatzeko) jarraituz, beharrezkoa da bi kasuetan, baimena eman aurretik, jendaurrean jartzea eskatu diren jarduerak, Biosegurtasunaren Foru Batzordeak 2005eko azaroaren 2ko bilkuran erabaki bezala."

Foru parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

1. Zer esan nahi du zehazki ondokoak: "Genetikoki eraldatutako artoaren borondatezko liberazioak, merkaturatzea ez den beste helburu batzuetarako"?

2. Jarduera horiek fororen batean onetsi al dira lehenago?

3. Nork eta noiz erabaki du Nafarroak ez diela eragozpenik jarriko transgenikoei?

4. Nork egin ditu transgenikoak ez direla arazo dioten txostenak?

5. Nork egin ditu haziak hedatzea eta espezieak kutsatzea ez direla arazo dioten txostenak?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

---

# Galdera, Valtierra eta Arguedasko saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Valtierra eta Arguedasko saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Errepide-sareko Jarduerak Azkartzeko Planean sartuta dago Valtierra eta Arguedasko saihesbidea, aurreikuspenei jarraikiz 2009ko bigarren hiruhilekoan bukatu beharko litzatekeena. Departamentuak 2008ko abenduaren 18an bere webgunean argitaratutako informazioaren arabera, ordea, proiektu hori esleitu gabe dago oraindik.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zerk eragin du obra horren esleipena atzeratu izana? Zer epe aurreikusten duzue proiektu hori betetzeko?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

---

## Galdera, Milagroko saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Milagroko saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Errepide-sareko Jarduerak Azkartzeko Planean sartuta dago Milagroko saihesbidea, aurreikuspenei jarraikiz 2009ko bigarren hiruhilekoan bukatu beharko litzatekeena. Departamentuak 2008ko abenduaren 18an bere webgunean argitaratutako informazioaren arabera, ordea, proiektu hori esleitu gabe dago oraindik.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zerk eragin du obra horren esleipena atzeratu izana? Zer epe aurreikusten duzue proiektu hori betetzeko?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

---

## Galdera, Mendabiako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Mendabiako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Errepide-sareko Jarduerak Azkartzeko Planean sartuta dago Mendaviako saihesbidea, aurreikuspenei jarraikiz 2009ko bigarren hiruhilekoan bukatu beharko litzatekeena. Departamentuak 2008ko abenduaren 18an bere webgunean argitaratutako informazioaren arabera, ordea, proiektu hori esleitu gabe dago oraindik.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zerk eragin du obra horren esleipena atzeratu izana? Zer epe aurreikusten duzue proiektu hori betetzeko?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

---

## Galdera, Lodosako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Lodosako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Errepide-sareko Jarduerak Azkartzeko Planean sartuta dago Lodosako saihesbidea, aurreikuspenei jarraikiz 2009ko bigarren hiruhilekoan bukatu beharko litzatekeena. Departamentuak 2008ko abenduaren 18an bere webgunean argitaratutako informazioaren arabera, ordea, proiektu hori esleitu gabe dago oraindik.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zerk eragin du obra horren esleipena atzeratu izana? Zer epe aurreikusten duzue proiektu hori betetzeko?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

---

# Galdera, Azagrako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Azagrako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Errepide-sareko Jarduerak Azkartzeko Planean sartuta dago Azagrako saihesbidea, aurreikuspenei jarraikiz 2009ko bigarren hiruhilekoan bukatu beharko litzatekeena. Departamentuak 2008ko abenduaren 18an bere webgunean argitaratutako informazioaren arabera, ordea, proiektu hori esleitu gabe dago oraindik.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zerk eragin du obra horren esleipena atzeratu izana? Zer epe aurreikusten duzue proiektu hori betetzeko?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

---

# Galdera, NA-7008 errepidea Gorozin eta Zurukuain bitartean zabaltzeko eta hobetzeko proiektuari buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, NA-7008 errepidea Gorozin eta Zurukuain bitartean zabaltzeko eta hobetzeko proiektuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren 2008ko aurrekontuei buruzko oroitidazkian, “Proiektuak, trenbideak eta obra hidraulikoak” izeneko programan, NA-7008 errepidea Gorozin eta Zurukuain bitartean zabaltzeko eta hobetzeko proiektua agertzen da. 2009ko aurrekontuetan, ordea, ez dira ezertarako aipatzen ez errepide hori ez proiektu hori.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zer jarduera egin dira 2008an proiektu horri dagokionez?

b) Zer epe aurreikusten duzue proiektu hori betetzeko?

c) Ba al dago dirurik 2009ko aurrekontuan proiektu horretarako?

Azkenik, proiektu hori geldirik baldin badago, erabaki hori hartzeko arrazoiak jakin nahi ditugu.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

## Galdera, Nafarroan 2000 eta 2008 bitarte garatutako udal industrialdeei buruzkoa.

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan 2000 eta 2008 bitarte garatutako udal industrialdeei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

a) Zer industrialde garatu dira Nafarroan 2000tik 2008ra arte, bi urteak barne, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin?

Datuan herrien arabera xehakatuta nahi ditut, zehaztuta industrialde bakoitzaren zabalera, lurzatien azalera osoa, ezaugarri bereziak, halakorik balego, eta industrialde bakoitzean onartzen diren erabilerak.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

## Galdera, Defentsa Ministerioak Ezkabako Gotorlekua laga dezan egin diren zuzemenei buruzkoa.

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Defentsa Ministerioak Ezkabako Gotorlekua laga dezan egin diren zuzemenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Defentsa Ministerioak Ezkabako Gotorlekua lagatzeko eginiko urratsei buruzko galdera.

1. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Ezkabako gotorlekuari buruzko erabaki bat onetsi zuen 2007ko azaroaren 9an, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen 2007ko azaroaren 15ean. Zer zuzemen egin ditu Nafarroako Gobernuak erabaki hura betetze aldera?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

---

## Galdera, jakiteko nola arindu nahi duen Nafarroako Gobernuak enpleguko zentro berezien laneko egoera buruzkoa.

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko nola arindu nahi duen Nafarroako Gobernuak enpleguko zentro berezien laneko egoera buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Nafarroako enplegu zentro berezien egoera kritikoa da, eta premiazkoa da administrazioaren esku-hartzea, gaur egun duten lan falta egoera ahal den neurrian arintzeko eta aldatzeko.

Gehienetan eta salbuespen gutxirekin, enplegu zentro bereziek lortu dute, zailtasunak zailtasun, ezgaitasunen bat duten pertsonen lanbideak dibertsifikatzea, ohiko enpresek soberan dituzten lanak egiten baitituzte. Ohiko lanen zati bat kanpora ateratzen zuten enpresa horiek, gaur egungo krisi egoeran, soberan zituzten lan horiek kanpora atera ez eta beraiek egiten hasi dira berriro.

IUN-NEBen ustez, enpresa horien ezaugarria denez ez dutela soilik lan okupazionala egiten, baizik eta gure gizartearen zati baten sozializazioaz eta hezkuntzaz ere arduratzen direla, Nafarroako Gobernuak lehenbailehen bilatu behar du konponbidea, langileen erosteko ahalmena eta, bereziki, enplegua, ziurtatzeko eta enpresa horiek langile horiei lanpostu bat ematerakoan egiten duten lan garrantzitsuarekin jarrai dezaten.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

• Nafarroan dauden enplegurako zentro berezien zerrenda.

• Nola arindu nahi duen Nafarroako Gobernuak enpleguko zentro berezien laneko egoera?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

## Galdera, urtarrilaren 22ko elurteak Loitiko mendatean eragindako trafiko-arazoak direla-eta Nafarroako Larrialdietako Agentziak jasotako telefono deiei buruzkoa.

*AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, urtarrilaren 22ko elurteak Loitiko mendatean eragindako trafiko-arazoak direla-eta Nafarroako Larrialdietako Agentziak jasotako telefono deiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1. Zenbat dei jaso dira gaurko egunean, urtarrilak 22, elurra dela-eta Nafarroako errepideetan trafiko arazoak ote zeuden galdetzeko? Noiz izan dira dei horiek eta nork salatu du?

2. Zenbat denbora behar izan zuten baliabideek Loitiko mendateko trafiko-mozketa konpontzeko eta zein izan ziren Nafarroako Larrialdietarako Agentziak koordinatutako baliabideak?

3. Lizarraldeko errepideek elurraren eragina izan zuten urtarrilaren 22an egun osoan. Hori dela eta, zenbat denboran eta zer baliabide koordinatu zituen Nafarroako Larrialdietarako Agentziak?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

---

## Galdera, urtarrilaren 22an Loitiko mendatean izandako trafiko-kolapsoari buruzkoa.

*JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, urtarrilaren 22an Loitiko mendatean izandako trafiko-kolapsoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1. Urtarrilaren 22ko goizean, hainbat gidari trafiko-kolapso batek harrapatu zituen, Loitiko mendatean nagusiki. Zeintzuk izan ziren kolapso horren arrazoiak?

2. Zergatik halako gertakari garrantzitsu bat ez da agertu Herri Lan Departamentuaren web orrian, eta ez zen adierazi ere egin errepideen egoerari buruzko doako telefonoan?

3. Zer neurri hartu ditu Herri Lan Departamentuak Loitiko gertakaria konpontzeko?

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: José M.ª Vázquez Royo

Inprimatzailea: Ulzama Digital (Iruña).
Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua